

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 180. alea - 2013ko abendua



# EUSKARAK 365 EGUN



# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



# ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



# ABEL

## Kristaldegia

Mota guztietako kristalak  
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



# AUKERA INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95



# URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

# LENTZERIA



# MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



# kutxa

zugandik zugana

**haizea**  
estetika

Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22. 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazatik

# ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behean - 20820 DEBA  
943 029 186

**IAZKUNE**  
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA  
1975etik zuekin!



Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

# Calbeton



JATETXEA

Agustín  
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

# L.A.

## LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959  
Mobila: 670 411 786  
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Jari zure publizitatea  
Berriketean aldizkarian!

**Zuhatzeta**

943 191 383  
berriketean@zuhatzeta.com

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

**Argitaratzailea:**  
Zuhatza Euskara Elkartea

**Erredakzio taldea:**  
Goizane Aizpurua,  
Mikel Aizpurua,  
Koldo Aperribai,  
Izaro Aulestiarte,  
Nagore Dorronsoro,  
Lukax Dorronsoro,  
Xabier Laka,  
Migel M.Lekube (Lutxo)

Ina Oiartzabal eta  
Eider Zulaika

**Azaleko irudia:**  
Ander Salegi

**Publizitatea:**  
Joseba Escudero eta  
Juan Mari Gurrutxaga  
Tlfnoa.: 943 19 13 83  
943 19 26 94

**Logotipoaren diseinua:**  
Iñaki Elosua

**Maketazioa:**  
Leire Rubio

**Banaketa arduraduna:**  
Juanma Oiartzabal

**Inprimategia:**  
Euskalinpri

**Tirada:**  
1.400 ale

**Lege gordailua:**  
SS-246-2009

**ISSN** 2171-7656

## OHARRA:

*Berriketan-ek* ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

## ARGITARATZAILAK



## LAGUNTZAILAK



Debako Udala



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAIA  
HEZKUNTZA POLITIKAREN ERAGILEAK  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Departamento de Política Lingüística



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ander Salegi

8



9

**KOLABORAZIOA.**  
Idoia Gereñu,  
"Kakanarrutxoeren etxeko ordularipean". **05.**

**INTZIA.**  
"Debak zer etorkizun dauka?" (Pako Salegi)  
eta "LOMCE legea" (Marian Larrañaga). **06-07.**




10

**EUSKARAREN EGUNA.** **08.**  
**ALBISTEA.**  
Badator Animadeba jaialdia. **09.**  
**LUDOTEKA IBILTARIAK.** **10**  
**BERRIKETAN GAZTEA.** **11-14.**



17

**ALBISTEA.** Juan Mari, Jokin eta Jose Mari etxean. **15.**  
**LABURRAK.**  
Arakistain eta Eskudero, trikitilari gazte onenak; Salegi jatetxearen pintxo saritu dute... **16-17.**  
**ZERBITZUAK.** **18.**



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

## Ertzaintza: segurtasuna ala probokazioa

Anoeta. Real Sociedad – Manchester U. partidua ikusteko irrikan, 14 eta 15 urteko bi gazte ordua iristeko zain kanpoaldean berriketan. Bat-batean, ertzainek besotik heldu, bazterrean eraman eta biak arakatu dituzte. Lapurketa bat inguruan izan dela eta lapurrak haien itxura omen –seguru asko gezurra, aitzakia baino ez–. Benetako arrazoa: 14 urteko gazteak zerman kamiseta ertzainen baten gustukoa ez zela. 15 urteko gaztea askatu eta kanpoan zain geratu zaio. 14 urtekoa, ordea, bazter batean, ertzainen artean, ordubete eduki, “el cuerpo del delito” konfiskatu –ertzainen hitzetan: “Camiseta negra con siglas en blanco: A.C.A.B. (*all cops are bastards*) y carnet de socio a su nombre” (parentesi artean datorrena ertzainek asmatutakoa da); eta askatu dute, objektuaren atzemate-akta eskuan duela. Bitartean gaztetxoaren amari deitu diote eta sekulako sustoa eman. Gainera adierazi diote “sanción administrativo”a izango duela, hau da, isuna.

Errealaren eta Manchesterren jarriztaileen aldetik istilurik izan ez zenez, badirudi ertzain batzuk gustura ez zuelako, ezin izan baitzuten erakutsi zein gogorrak diren, eta errazenera jo zuten: gaztetxo bat izorratu, ezin partidurik ikusi, eta, gainera, isuna. Hemendik aurrera, arazorik ez izateko nire gomendioa kamisetan zerbait idatzia eramatekotan izan dadila “I am police” edo antzekoak. Ah! Eta ahaztu gabe, eraman soinean Real Madrಿದೆko bazkide txartela, zeren badirudi Errealekoa eramatea delitua dela.

Antza, ertzainen ingeles maila ona da, baina ea noiz ikasten duten euskara, gazteei ez baitzieten hitz bat bera ere gure hizkuntzan zuzendu.

Beraz, hau omen da Ertzaintzaren erredua: gezurtia, lapurra, erdalduna eta probokatzailea. Noiz arte?

*Jone Eskudero*

## IHTZIA



Debako Gazte Asanblada

## DEBAKO IKASLE ASANBLADA

Debako ikasle mugimendua urte dextetetan hilda egon da, baina, gazte mugimenduari esker, ikasle borroka berpizteko asmoa duen talde bat sortu zen, Debako Ikasle Asanblada.

Proiektu hau uda bukaeran hasi zen, herrian ikasle mugimendu bat behar zela konturatu ginelako. Horregatik, ilusio eta gogo handiz aurrera egin genuen, pixkanaka-pixkanaka talde bat sortzen joan ginen, lehen pausuak emanez. Egunak pasatuz joan ziren, kurtsua hasi zen, eta institutuan gure presentzia nabaritzen joan zen.

Gure borrokak sexismo, matxismo, arrazismo, edo edozein ikasle euskaldun baztertuko duen ekintzen aurka doaz.




Gainera, gure korridoretan euskara entzutea da gure nahi handienetakoa bat eta ez beste hizkuntza arrotzik, euskara gurea delako eta guk zaindu behar dugulako, gure esku baitago bere etorkizuna.

Gure ustez oso garrantzitsua da ikasle mugimendua herri eta estatu mailan, gaztetatik mugitzen ikasten bada etorkizunean gazteriak indar gehiago edukiko baitu.

Bestalde, laguntza handia jaso dugu mugitzen hasi ginenetik herriko erakunde askorengandik, eta horiei eskerrak eman nahi dizkiegu, beraiek gabe ez ginelako ezer izango! Eskerrik asko!

*Jon Yarza eta Ekaitz Zubimendi*



## Idoia Gereñu

### KAKANARRUTXOEN ETXKO ORDULARIPEAN

Arratseko zazpiak jo berri dute Edurne Zuri eta zazpi Kakanarrutxoen etxeko ordulariaren arabera. Baina han beti dira zazpiak, inork orratzik mugitu ezean. Irakurleek eta eskuz.

Huraxe izan zen neuretzat, gure denbora ulertzeko metodoa ikasteko bidea. Ordularidun liburu eder bat. Orratzak norberak higitu eta orduak ikasteko ordularidun liburu ederra. Eta irakurle, barkaidazu baina, eder diot, aitarekin liburu dendara joan eta neure kabuz, neure gustuen arabera, nik, bakarririk, erosi nuen lehen liburua izan baitzen “Edurne Zuri eta zazpi Kakanarrutxoen ordu zorientsuak” izenekoa. Neuk aukeraturiko lehen liburua! Ederra beraz, nola ez!! Eta orain gutxi, liburua sorpresaz kaxa zahar batetik atera, eta nire idazmahaiaren alboan zintzilikatu dut.

Arratseko zazpiak jo berri dute Edurne Zuri eta zazpi Kakanarrutxoen etxeko ordulariaren arabera. Hari begira nagoela orduak eta minutuak neure kasara mugitzen nituen garaiaz oroitu naiz. Jolasean, erotu beharrean dantzazten nituen orratz luzea eta motza. Ezker eta eskuin, erritmo bizi zein amaigabea. Eta batzuetan, geratu egiten nuen denbora, hala nahi izaten nuelako. Edo polit geratzen zelako. Edota, aspertua nintzelako orratzen amaraunean. Alabaina, ez zen segundorik eta ordurik existitzen niretzat. Egunak, goizak

zein gauak ulertzen nituen asko jota. Eta loak. Loak ere bai. Bi lo. Lau lo... Baina haiek guztiak gurasoek kontatzen zizkidaten.

Alabaina, ikasi nuen denbora zenbakiz izendatzen. Eta gaur, denboraren gomuta artean saltoka nabilen honetan, ordularirik gabe bizi direnen kulturatar egin dut jauzi. Egunen joan etorriek bere soiltasunean garrantzia handiegirik ez duten

herrietara. Denbora, eguzkiak berak ilargiaren laguntzaz markatzen duen txokoetara. Eta urrea balio duen gure denbora, pasa beharreko kontzeptu ezezaguntzat besterik ez duten jendarteetara. Gomutak datozkit burura, eta lasaitasuna. Eta patxadarekin batera, irribarrea.

Egun, bekaizkeriaz eta miresmenez begiratzen diogu guk, progreek, ordularirik gabeko bizimoduari. Trankiltasunari. Ikusiak ikusi eta gero, ordea, ezagutuak ezagutu ondoren, ez da erraza orratzik gabeko bizikera baten alde egitea, osasungarriagoa bada ere. Bai baititu gauza onak guztiok ordu bera partekatzeak ere.

Halere, nirekin noizbait ordu zehatz batean geratu eta garaiz agertzen ez banaiz, jakizue, akaso, gaur zazpiak markatzen dituen Edurne Zuri eta Kakanarrutxoen etxeko ordularipean izango nauzuela, batzuetan denbora gelditzea posible dela sinistuta. Nire lehen liburua horretarako aukeratu bainuen!



## DEBAK ZER ETORKIZUN DAUKA?

Debako udalaren enkarguz Siadecok egindako 2013ko iraileko azterketan oinarrituz (Udaleko webgunean ikusgai dago), 2013ko urriaren 9ko osoko bilkuran, Debako Udalak Itziarko auzo-udala eratzea onartu zuen aho batez.

2013ko urriaren 10ean, alkateak idatzi bat bidali zigun Debako auzotarroi, urriko hirugarren astean zehar, hilaren 24an hain zuzen ere, Itziarren, Elorriagan, Lasturren eta Deban egingo ziren batzarretara deituz.

Azpmarratu beharra dago, ordura arte debarrok ez genuela egitasmoaren inolako berririk, ezta hartutako erabakiek herriaren etorkizunerako zekarten ondorioen garrantziaren ezagutzarik ere.

2013ko urriaren 13an, *Diario Vasco* egunkarian argitaratutako artikulua-ren titulua honela zioen: "El ente aglutinará 48 km2 de los 51,9 km2 que tiene el municipio, y permitirá a los vecinos gestionar algunos servicios" eta "permitirá a los vecinos de la entidad local menor un mejor acceso a los servicios municipales".

Egun batzuk geroago *Diario Vasco* eta *Noticias de Gipuzkoa* egunkarietan, herritar batzuk sinatutako "Deba, Entidad Local Menor de Itziar" iritzi artikulua azaldu zen.

Gertaera hauen guztien ondorioz, Debarako erabaki historiko bat hartu nahi zela jakinda, eta parte hartzeko bideak nolakoak izan ziren ikusita, mobilizazio garrantzitsua sortzen da herrian, egitasmoa deszentralizazio administratibo bat baino askoz gehiago baita.

Urriaren 24an, alkateak deitutako batzarra egin zen Deban, herritar ugari bertaratu ginen. Eta, oro har, bileran iritzia eman genuen herritarrok egitasmoarekiko desadostasuna adierazi genuen. Erabakia parte hartzerik gabe hartu zelako eta auzo udalaren lurralde-eremuak etorkizunean Debako hirigunearen garapena erabat mugatuko zuelako.

Bilerara bertaraturako udal ordezkariak, alegazioak aurkezteko epea luzatzeko posibilitatea aztertzeko konpromisoa hartu zuten.

Herritarren kezka eta zalantzak

geroz eta handiagoak ziren, eta, herritar batzuk sinadurak biltzen hasi ziren: "Itziarren Tokiko Entitate Txikiak Debaren garapena galarazi ez dezan sinadura bilketa" lemapean.

Dagoeneko 1.000 sinadura baino gehiago jaso dituzte eta hauxe eskatzen diote udalari:

a) Espedientea geldiaraztea, herritar guztien partaidetza bermatzeko. Eta udalak herritar guztion iritzia jaso dezala, ez bakarrik Itziar eta auzokoena.

b) Aurkez daitezkeen alegazioak babestea, herritar guztiontzat onuragarria den proposamen alternatibo bat lortzeko.

Azaroaren 7an, Udalak alegazioak aurkezteko epea hiru hilabetez luzatzea erabaki zuten.

Nire ustetan, gertatutakoari buruzko zenbait ondorio atera ditzakegu:

1) Sortu berri den herri mugimendua ez dagoela Itziarko auzo-udala sortzearen aurka, planteatutako lurraldetasunak Debaren etorkizuneko garapena mugatzearen aurka baizik.

2) Sinatzaileok politikoki, oso profil ezberdinetakoak garela, hots, zeinu eta izaera guztietako pertsonak, sinadura kopuruak adierazi dezakeen bezala.


3) Hartu beharreko erabakia hain garrantzitsua denez, alderdiek erabakita-koa albo batera utzita auzotarrek beren jarrera defendatzea erabaki dutela.

4) Egitasmoaren garrantzia zenbaterainokoa den erakusteko, herri mugimendua eman dituen azalpenak aintzat hartuz, alderdi politikoei hartutako erabakia sakon berraztertu beharko dutela, behin betiko erabakia hartu baino lehen.

5) Lasturren ere, kezka sortu direla eta auzotarrek idatziz igorri dituztela udaletxera.

Luze joko luke Siadecok egindako lanari buruzko analisi osoa egiteak; baina, ezin dezaket idatzi hau bukatu Siadecoren lanean jasotako zenbait kontzeptu aipatu gabe:

1) Auzo-udalak, behin eratu eta, lehen urtean, Debako aurrekontuetan, Itziarko gastuaren %0,60ko igoera suposatuko luke, bigarren urtean %1,47a, hiruga-



ren urtean %2,10a eta hurrengo urteetan? Aurreikuspenen arabera hurrengo urteetan udaletxeko dirusarrerak mantentzen badira, diru kopuru horiek non murriztu beharko ditu udalak?

2) Itziarko jarduera lizentzien onespina auzo-udalaren kompetentzia izango da. Ez al da hau Itziarri esleitutako gastuen kudeaketa soila baino zer bait gehiago?

3) Hirigintza Batzordeak, Gobernu Batzordeak eta auzo-udalak, Itziarko poligonoko obra nagusietarako lizentziak onartuko dituzte. Nola lortuko dugu kudeaketa bizkortzea eta erraztea baimenak emateko beste organo bat sortzen badugu?

4) Planteatutako lurraldetasunak, 3,9 km2 Debako hirigunearentzat, eta 48 km2 Itziarko auzo-udalarentzat, ez du inolako proportzionaltasun irizpiderik gordezten eta ez du inola ere bi entitateen iraunkortasuna bermatzen.

5) Garbi dago Itziarko industrialdeak duen eragina herri mailatik at doala eta, beraz, ez da zentzuzkoa auzo-udalaren eskumena izatea. Bestalde, auzo-udala sortzearen zergatia azaltzeko erabiltzen den argudioa nekazal eremu bat izatearena da, zerikusirik ba al du horrek industrialdearekin?

Amaitzeko, Udalak parte-hartze prozesu bat hasiko duela pentsatu nahi nuke, herritar guztiok gure iritzia adieraztea ahalbideratuko duena, eta, iritzi horietan oinarrituta hartuko dituela azken erabakiak.

Pako Salegi Aizpurua

**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



## LOMCE LEGEA

**Badator!!! Badator!!!  
eta ez da Olentzero,  
“Lomce Legea” baizik. Hau da zoritxarra!!!**

gertuko da, eta Erljioa egiten ez dutenek Gizarte eta Kultura Baloak (Lehen Hezkuntza) eta Balo Etikoak (Bigarren Hezk.) izeneko ikasgaiak landuko dituzte.

### 4.- Errebalidak eta azterketak noiznahi

Selektibitatea desagertu egingo da. Ziklo batetik bestera igarotzeko, azterketa egin beharko dute ikasleek. Azterketok eskolaz kanpoko erakunde batek antolatu eta zuzenduko ditu. Hurrengo ziklora pasatzeko gainditu beharrekoak bi dira: DBHkoa eta Batxilergokoa. Unibertsitateek ere sarbide-probak egin ahal izango dituzte.

### 5.- Lanbide Heziketa: ikasleen zatiketa

Lanbide Heziketan hasteko adina aurreratu dute. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aurrera egiterik ez duten ikasleek **Oinarrizko Lanbide Heziketan** eman ahal izango dute izena, 15 urterekin. Halere, aurreneko ziklo hau eginda, **Bigarren Mailako Lanbide Heziketan** jarraitu nahi dutenek beste azterketa bat egin beharko dute. Ikasle **“txar eta onen artean”** bereizte horrek haserrea piztu du hezkuntza komunitatearen baitan, eskola porrotari zorrotz jardunez egin nahi diotelako aurre, euren esanetan.

Eskola “onenen” zerrendak egitea ere egongo da. Orain arte, eskolen arteko lehia saihesteko, debekatuta zeuden zerrendok.

### 6.- Arlo ezberdinek eskolan duten garrantzia, txikiagoa

Eskola Kontseilua (hezkuntza komunitateko agente guztiek osatutakoa) aholku-emaile soila izango da aurrerantzean. Hala, ez du eskola erabakietan eta antolaketa zuzenean eragingo. LOMCE legearekin, zuzendariek eta zuzendaritza taldeak izango du boterea.

### 7.- Zuzendarien papera

Goernuak izendatuko ditu eskoletako zuzen-

dariak, izan ere, kargu hori izan nahi duten irakasleek formazio prozesu bat igaro eta ziurtasun bat eskuratu beharko dute. Orain arte Eskola Kontseiluak izendatzen zuen zuzendaria.

Irakasleak zuzenean kontratatu ahalko dituzte zuzendariak, eta hauek ez dute zertan oposizioa gaindituta izan beharko.

### 8.- Funtzionarioen lan-baldintzak

Irakasleen lan-baldintzak ere aldatuko dituzte. Funtzionarioek zein ikastegitan eta zer-nolako lanetan jardun beharko duten moldatu dezake Administrazioak. Lanorduak ere handituko dizkiete. Horrez gain, ikasgela bakoitzean egon daitekeen ikasle kopurua %10 igoko dute.

### 9.- Eztabaidarik eta akordiorik gabeko erreforma

Hezkuntza-komunitatea osatzen duten agente guztiek ezezko biribila eman diote erreformari. Sindikatuek, guraso elkarteek, ikasleek, sare publikoko zentroek, itunpeko eskolek, ikastolek... denek bat egin dute lege horren kontra agertzeko. Horiek salatu dutenez, erreforma ez da hezkuntza-komunitatearekin eztabaidatu, ezta adostu ere.

### 10.- Itunpeko zentroak

Itunak berritzeko epea luzatuko dute. Lehen Hezkuntzan gehienez ere lau urtean behin berritzen da orain, aurrerantzean sei urtetik gorako epean; Bigarren Hezkuntzan, lau urtean behin.

Administrazioak, halaber, “gizarte-eskaria” kontuan hartu beharko du plazak banatzerako orduan; hau da, gurasoek zentro publikoak barik, itunpekoa nahiago dutenean.

**Ikusten** dugun bezala, erreforma hau ez dagokigu irakaslegoari soilik, komunitate osoari baizik. Zer egin honen aurrean? Burua makurtu? Ez, adiskideok. Honen aurrean: **INTSUMISIOA**. Denok borrokatu behar dugu lege honen kontra (**Administrazio guztiak barne**). Eutsi gogor eta aurrera!!!

Marian Larrañaga

Euskadin 30 urtez indarrean egon den murgiltze linguistikoa ezerezean geratuko da, gaztelaniaz eta euskaraz eman beharreko irakasgai kopuru parekatua zehaztuko delako. Hauek dira erreforma honen **10 aldaketa nagusiak**:

### 1.- Gaztelania nagusi: murgiltze linguistikorik ez

Espainiako Goernuak ezarriko ditu Gaztelania irakasgaiaren eduki eta ordu kopuruak. Aurrerantzean, irakasgai ardatz izango da. **Eus-kara**, berriz, espezialitate ikasgaitzat jo dute.

### 2.- Zentralizazioa: Ministerioaren kontrol handiagoa

Autonomia erkidegoek espezialitate ikasgaien (Euskara, Heziketa Fisikoa...) eduki eta ordutegiak bakarrik zehaztu ahalko dituzte. Espainiako Goernuari dagokio, beraz, ikasgai ardatzen ingurukoa ezartzea (Gaztelania, Matematika, Zientziak eta atzerriko hizkuntzak). Beste modu batera esanda, **edukien %65** kontrolatuko du Espainiak (%75, bigarren hizkuntza ofizialik ez duten erkidegoetan).

### 3.- Erljio katolikoa, indartuta

Erljioa espezialitate-irakasgaia izango da datorren ikasturtetik aurrera, batez besteko nota kalkulatzeko erabiliko dute, eta beste ikasgaien ordu kopuruarekin parekatuko dute. Eliza katolikoak aspaldi egindako eskaera bati men egin dio Rajoyren goernuak, matrikulazio kopurua %10 jaitsi zela eta arduratuta baitzegoen.

Herritartasunerako Hezkuntza desa-

**Seven Clovers**  
Irish pub  
Gozatu gure garagardoa  
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295

**Bar LOREA**  
“Orotariko tartak etxean eginak”  
Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



Euskararen eguna ospatzeko, euskaraoke herri-koia antolatutako Debako Gaztelekuak, Udala eta Zuhazta Euskara Elkartearen laguntzarekin. Herriko 23 talde aritu ziren mikroa hartuta euskal kanta ezagunak gogotsu abesten. Ekimenak lortu zuten babesa eta arrakasta kontuan hartuta, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete parte hartzaile guzti-guztiei!

*Irudiak: Ander Salegi*



## EUSKARAK 365 EGUN

**365 egun bizitzeko, aldarrikatzeko, plazaratzeko, izateko, ospatzeko.**

Abenduaren 3a ospatu dugu, 1949an Eusko Ikaskuntzaren ekimenez sortutako Euskararen nazioarteko eguna. Eta abenduaren 3a ere bizitzeko, aldarrikatzeko, plazaratzeko, ospatzeko eguna izan da euskaltzaleontzako.

Urte osoan zehar euskaraz bizi nahi dugunontzat eta euskaltzale garen guztiontzat egun garrantzitsua da abenduaren 3a, geurea delako. Baina hurrengo egunak, asteak eta hilabeteak ere garrantzitsuak direla ez dugu ahazten, horiek ere geure-geureak ditugulako. Euskaltzaleak biltzen hasi ginela urte asko joan dira jadanik eta herriz herri antolatuta gauden euskaltzaleok badakigu urte osoko ahaleginak ematen dituela bere fruituak. Euskarazko kulturgintza gozatzeko guneak sortu ditugu; euskaldunontzako harreman-sareak ehuntzen dihardugu; sortu ditugun herri aldizkari eta hedabide ugariak eus-

karazko informazio iturri hurbilak ditugu; aisialdi taldeen bidez haur eta gazteek aisialdia euskaraz gozatzeko guneak ditugu; era guztietako entitate eta erakundeetan euskaraz aritzeko eragile lana egiten dugu, eta; herriko euskal hiztunon komunitatea martxan jartzen dugu.

Euskaraz bizitzeko baldintzak sortu nahi ditugu eta horretarako euskaltzaleon ekarpena behar-beharrezkoa da: espazioak sortzen eta geureganatzen, harreman sareak ehuntzen, ardurak eskatzen eta hartzen, botereguneetan eta inguru hurbilenetan eragiten. Euskaldun bizi gara eta euskaltzale gara urte osoan eta hori aldarrikatu nahi dugu, 365 egunetan.

Euskararen egunak kalean bizitzeko gonbitea da hau, euskarak eta euskaldunok kalea hartzeko gonbitea. Urte osoan euskararen egun bihurtzeko eta aldarrikatzeko deia da hau, plaza euskaraz betetzeko deia. **Biltzeko eta eragiteko proposamena da hau, gu izateko euskararen herrian.**



# Badator Debako

## VI. Animazio Zinemaldia

Animadeba 2013 jaialdia abenduaren 26tik 30era bitartean ospatuko da. Debako Animazio Zinemaldiak seigarren edizioa du aurtengoa, eta egitarauaren baitan antolatutako hitzordu gehienak Agirre Jauregiko Ispiluen Gelan burutuko dira. Hitzaldia, tailerrak, film laburren eta luzemetraien emanaldiak, kontzertuak... Bete-betea dator urteko azken egunetarako agenda. Hona hemen jaialdiaren egitaraua, egunez egun:



Debako VI. animazio zinemaldia

### Abenduak 26, osteguna

-19:00: Jose Luis Rebordinos Donostiako Zinemaldiko zuzendariaren hitzaldia.

-Laburmetraia:

"Hotzanak, for your own safety" (2013, Euskal Herria-Izibene Oñederra, 4').

-Luzemetraia:

"Fantástico Sr. Fox" (2009, AEB-Wes Anderson, 87').

-22:00: "Peur(s) du Noir" (2007, Frantzia-Blutch, Charles Burns, Marie Caillou, Pierre Di Sciullo, Lorenzo Mattotti, Richard McGuire, 78'-VOS-). Emanaldia Gaztetxean izango da.



### Abenduak 27, ostirala

-17:00: Luzemetraia: "The Wish Fish" (2011, Espainia, India-Gorka Vázquez & Iván Oñeña, 74').

-19:30: Kontzertua: AIN\_1.



### Abenduak 28, larunbata

-17:00: Luzemetraia: "Blackie eta Kanuto" (2012, Espainia-Francis Nielsen, 81').



### Abenduak 29, igandea

-19:00: Laburmetraia: "S.O.S. Mamba Beat" (2013, Euskal Herria-Zuriñe Goikoetxea-Colectivo Nouvelle Basque, 4'05").

-Luzemetraia: "Mary & Max" (2009, Australia-Adam Elliot, 88'-VOS-).

-22:00: Kontzertua, Maxi Tabernan: GARI, "Ez da amaiera".



### Abenduak 30, astelehena

-19:00: Nontzefilmak 2013, 10 urte (laburmetraiak):

"Náufragos" (Mario Rico, Espainia, 3'03").

"Dena eta ezer ez dago" (Aitor Oñederra, Euskal Herria, 2'23").

"Zoologikoak dira poxpolo kaxak" (Koldo Almandoz, Euskal Herria, 2'20").

"The story of the struggle against the worms hazard" (Nicolay Belov, Moscow-Rusia, 2'32").

"Laberinto máquina" (Omar Alonso, Soledad-Atlántico, Kolonbia, 1'20").

"Stupid boy" (Ivan Bogdanov, Sofia-Bulgaria, 1'20").

"Literalmente" (Néstor Fernández Núñez, Bartzelona, 53").

"Oxígeno" (Gerardo De la Fuente, Avila, 3'20").

"Robot" (Asís Merino Muñoz, Madril, 2'30").

"Cholita" (Daniel Collazos Bermúdez, Lima-Peru, 1'58").

"La pérdida del juicio" (María Manero Muro, Azagra, 2'10").

"A primeira vez que descobri para que servia o meu rabo" (Bruno Silva, Portugal, 3'14").

"Hitzak" (Mikel Calvo Abárzuza, Bergara, 2'08").

"El fantástico mundo del fantástico Morales" (Jossie Malis, Bartzelona, 1'38").

"Tarantella" (Unai Rosende & Aitor García, Euskal Herria, 3'24").

"Kaboom" (Esther González Gómez, Torrelavega, 0'38").

"Enajenados" (Luciana Digiglio, Argentina, 3'21").

\*Animadeba Tailerra; Gortina lehiaketa.

## ROSKOPIA TAILERRA

Animadeba "Rotoskopia tailerra" k egun aldaketa izan du eta abenduaren 21, 23 eta 28an burutuko dira saioak Debako liburutegiko informatika gelan, 9:30etik

13:30era. Tailer honen helburua zera da: "Rotoskopia" animazioaren teknika helduei zein txikiei gerturatzea. Pelikula original baten gainean geurea sortuko

dugu. Kolore, forma eta ingerada desberdinak sortuko ditugu film berria eta, horretarako, irudimena eta fantasia baliatuko ditugu.



## LUDOTEKA IBILTARIAK

Azaroko hotzarekin batera iritsi zitzaizkigun ludoteka ibiltariak Deba, Itziar eta Lasturrera.

Hilabeteko lau ostiraletan eskaini genituen saioak eta primeran pasa genuen adin ezberdinetako haurrekin. Tailerrak, jolas txokoak, muralak eta abar izan genituen tartean.

Mila esker parte hartzera hurbildu zineten guztioi eta baita laguntzen aritu zineten herriko hainbat gazteri ere!!

Urtea bukatzeaz dagoen arren, amets hau egia bihurtzen jarraituko dugulakoan... laster arte!

*Kolore Anitz Aisialdi Taldea*



## Berriketan gaztea

## Debako jai giroa

Alaitasuna eta dibertsioa debarron izaeraren ezaugarri dira. Edozein aitzakia, momentu edo toki egokiak dira festa bizitzeko. Deba eta inguruko jendeak data hauek gorritz jarri beharko lituzke beraien agenda eta egutegietan.



**-Zoro Feria** urteko lehen larunbatean ospatzen da. Azoka egoten da eta baserriko produktuak saltzen dira bertan.

**-Santa Ageda** bezpera otsailaren 4an ospatzen da. Adin guztietako jendea joaten da baserri-  
rez jantzita Debako kaleetatik. Herritar batzuek "limosna" ematen dute.

**-Inauteriak** otsaila/martxoko larunbat eta astearte batean ospatzen dira. Ia debar denak animatzen dira mozorrotzera.

**-Debarren eguna** maiatzeko hirugarren astean ospatzen da. Herri askotako erraldoiak etortzen dira, eta oso giro ona egoten da.

**-San Juanak** ekainaren 23an eta 24an ospatzen dira; gauean Foruen Plazan su handi bat egiten da. Santa Katalina ermitan meza egiten da ekainaren 24an.

**-San Pedro bezpera** ekainaren 28an ospatzen da eta zahatoak erretzen dira plaza zaharrean.

**-San Rokeak** abuztuaren 14tik 18ra ospatzen dira. Abuztuaren 14an zapia jartzen zaio San Rokeren figurari Portu Kanean. 15ean umeen eguna da, eta 16an San Roke Eguna. San Roke txiki, "Mariñel eguna", abuztuaren 17an da. Eta azkenik, 18an, gaueko hamabietan, zapia kentzen zaio patroiarri, eta herritarrek ere kendu egiten dute. Ekitaldi jendetsuenak zezenketak eta kontzertuak dira.

**-Euskal Jaia** irailaren azkenengo larunbatean ospatzen da. Bazkari herrikoa egiten da eta gauean erromeria egoten da.

**-Gabonak** abenduan hasi eta urtarrilaren 8ra bitartean ospatzen dira, egitarau bereziekin. Etxez etxe kantatuz joaten dira diru eske. Olentzero eta erregeak ere bertan izaten ditugu gozokiak banatzen.

## Ikasleen moda desfilea

Pasa den azaroaren 8an, 4. mailako ikasleek moda desfilea egin zuten Aldats pilotalekuan, ikasbidairako dirua lortzeko asmoz. Hilabete bat lehenago hasi ziren prestatzen: koreografiak egiten eta ikasten, eta sarrerak saltzen -1, 2 eta 3. mailako ikasleei 3 euroan saldu zizkieten-. Desfilea hasi baino lehenago ere sarrerak saltzen egon ziren arratsalde osoan, 4 euroan 15 urtetik gorakoentzat.

Desfilea 22:00etan hasi zen. Jende asko hurbildu zen pilotalekura, eta hainbat irakasle ere jakin-min handiz bertaratu ziren. Desfilea honetan herriko zenbait arropa dendak eta ile-apaindegik parte hartu zuten.

Ikuskizunaren hasieran, Jon Amutxastegi eta Bedatz Lopez aurkezleak irten ziren. Gerora, jaialdian dantzak eta pasarela tartekatuz ziren. Hauek dira desfilean entzun ziren zenbait abesti ezagun: *It's the final Countdown*, *El tiburón*, *Antes muerta que sencilla*, *Any Way...* Bertsoak ere bota zituzten; binaka pare bat bertso, trikixka eta panderoaz lagunduta.



2013ko abendua  
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerlean Sortua.



# ELKA RRIZ KETAK

## Jon Amutxastegi

4. mailako ikasleekin batera, Jon Amutxastegi ikasbidairako dirua biltzen ari da. Krisi garai hauetan ez da erraza izango diru asko lortzea... Gure jakin-mina asetzeko, berarengana jo dugu argibide eske:



**Noiz hasi zarete ikasbidairako dirua lortzen?**

lazko Aste Santuan gutxi gorabehera, zaharragoek dirua lortzen amaitu zutenean.

**Zer ekintza egin dituzue dirua lortzeko?**

Hasieran ogitartekoak saltzen hasi ginen, autobusak jarri genituen Kilometroetara eta Ibilaldira, hainbat txosna jarri ditugu, desfilea egin dugu, rifak saldu ditugu... Gauza asko egin ditugu.

**Zer moduz doa diru bilketa?**  
Nahiko ondo doa.

**Lan handia izan al da desfilea antolatzea?**  
Bai, lan handia izan da.

**Jendeak nola erantzun du?**  
Oso ondo, ia sarrera guztiak saldu genituen.

**Jendeak nora joateko asmoa du?**  
Batzuek Tenerifera joan nahi dute, beste batzuek Saloura...

**Dirurik lortu al duzue horretarako?**  
Bai, oraingoz diru dezente lortu dugu.

**Ondo moldatu al zarete antolatzen?**  
Bai, denon artean ondo konpondu gara.

**Iratz Fernandez**  
4. mailako ikasleen desfilean parte hartu zuenetako bat dugu Iratz Fernandez. Desfile egunean izan zituzten bizipenei buruz joan gaitzaizkio galdezka:

**Zer moduz irten zen desfilea?**  
Nahiko ondo, baina hobeto atera zitekeen.

**Oso urduri jarri al zinen?**  
Ez, azken unean bakarrik, inoiz ez nintzelako aritu desfile batean.

**Esperientzia ona izan al da?**  
Bai, asko ikasi dut.

**Zaila izan al da koreografiak ikastea? Zenbat denbora behar izan zenuten entseatzeko?**  
Ez, oso erraza izan da. Guztira dantza

bakoi-  
tzeko sei entsegu egin genituen, baina ni bi entsegutara bakarrik joan nintzen.

**Zer arroparekin desfilatu zenuen? Gustuko zenuen arropa hori?**  
Yakoko arropekin. Bai, gustuko izan ditut.

**Zein ile-apaindegitan prestatu zintuzten? Gustatu zitzaizun zure orrazkera?**  
Kixkorren. Bai, ondo zegoen.



Oraingo honetan, Mendata ikastetxean maitasunari buruzko galderak egin dizkiegu ikasleei:

- 1.- Zure ustez zer da maitasuna?
- 2.- Pertsona batek nola jakin dezake benetan maiteminduta dagoela?
- 3.- Zenbat irauten du amodioak? Bizitza guztirako izan al daiteke? Eta lehenengo begiradarekin ager daiteke?
- 4.- Zergatik uste duzu amodioak sufriarazi egiten duela?
- 5.- Amodioaz zer espero duzu zeure bizitzan?



### Naroa Rosa:

- 1.- Bi pertsonak elkar maitatzea.
- 2.- Batak bestea ikustean sentitzen duenaren arabera.
- 3.- Biak.
- 4.- Beste pertsonak ez duela maite.
- 5.- Mutil bat aurkitzea eta berarekin pozik egotea.



### Iñaki Aldazabal:

- 1.- Bi pertsonen arteko harremana oso indartsua izatea.
- 2.- Bihotzean taupadak azkartzen direnean.
- 3.- Segun eta zenbat maite duten elkar bi pertsonak. Bai. Bai, "fletxazo" bat izaterakoan.
- 4.- Moztzen dutenean min handia sentitzen dutelako.
- 5.- Egunen batean neska liluragarri batekin irtetea.



### Paola Iñurrieta:

- 1.- Pertsona batek beste pertsona batengatik sentitzen duena.
- 2.- Maite duzun pertsona ikustera koan zerbait sentitzen duzunean.
- 3.- Segun. Ez, norbaitek bukatu egin behar du. Bai.
- 4.- Besteak engainatzen bada, min egiten du.
- 5.- Pertsona bat edukitzea eta berarekin denbora asko egotea.



### Marta Aznal:

- 1.- Norbaitekiko "kariñoa" izatea.
- 2.- Pertsona hori ikustean urduri jartzen bada, maiteminduta dago.
- 3.- Segun. Bai. Bai, noski.
- 4.- Gaizki pasatzen delako haserre egotean.
- 5.- Espero dut zorte ona izatea.



### Telmo Soto:

- 1.- Ez dakit.
- 2.- Beste pertsonak asko erakartzen duenean.
- 3.- Segun. Egiazkoa baldin bada, bai.
- 4.- Maite duen pertsonak zerbait txarra egiten dionean min handia egiten du.
- 5.- Ona izatea.



### Malen Turrillas:

- 1.- Pertsona bat maitatzea.
- 2.- Urduri jartzea bera ikustean.
- 3.- Pertsonak nahi dutena. Nahi bada, bai. Bai.
- 4.- Batek ez duenean nahi besteak eskatutakoa egiterik.
- 5.- Oso ona izatea.




### Xabat Alberdi:

- 1.- Pertsona batek beste bat maitatzea.
- 2.- Eta nik zer dakit!
- 3.- Nahi beste. Bai. Bai.
- 4.- Oso gogorra delako.
- 5.- Nik uste dut oso ondo joango zaidala.



### Josu Bollain:

- 1.- Bi pertsonak beraien artean sentitzen duten amodioa.
- 2.- Bihotzean sentitzen duen taupadengatik.
- 3.- Hori ezin da jakin, dena ez da betirako.
- 4.- Gauza oso mingarria delako.
- 5.- Dena ondo joatea espero dut.



# DenBord-pasaK

## TXISTEAK



**\*Puntuen festa bat dago** eta asterisko bat agertzean denak berari begira geratzen dira... zera esaten die asteriskoak:  
-Ez duzue inoiz orraztu gabeko punturik ikusi?

**\*Zertan** dute elkarren antza txakur-zaintzaile batek eta abokatu batek?

...Biek besteen zikinkeriak garbitzen dituzte!

**\*Zer egiten dute** 100 Jesukristok zuhaitz baten gainean? Kriston itzala.

**\*Ezetz jakin** nork asmatu zuen Asia? Bikote batek, amodioa egitean: A si A...

**\*Pertsona batek** telefono batera deitu eta zera galdetzen du:  
-Hau zerbitzu sekretua al da?  
-Ezin dizut esan.

**\*Amonak ilobari esan dio:**

- Zer eman diozu jaten katuari?
- Alpistea.
- Esan nizun ba alpistea kanarioarentzat dela!
- Bai, baina kanarioa katuaren barruan dago!

**\*Emakumezkoa** medikuarengana joan eta zera galdetu dio:

- Jauna, zer esan zenidan: Piscis ala Geminis?
- Kantzer, andrea, kantzer txar bat zenuela esan nizun!

**\*Badakizu** zergatik zebiltzan ipotxak basoan?  
-Belartxoek arrautzatxoak igurzten zizkietelako.

**\*Animalia batek** zera esan dio besteari:

- Zer zara zu?
- Ni otso-zakur bat naiz, eta zu?
- Oso hormiguero bat.
- Hori ezinezkoa da!

**\*Zer esaten dio** semaforo batek beste semaforo bati?  
Ez begiratu, aldatzen ari naizela!

## HIZKI-SOPA

Z	A	A	L	E	G	E	R	R	E
A	B	Y	B	I	K	A	I	N	O
T	K	O	S	T	I	T	S	E	N
E	M	A	R	G	A	T	U	A	A
X	A	L	O	R	M	P	E	K	Z
T	O	I	S	G	A	R	I	S	T
N	T	U	R	E	R	G	E	L	A
I	R	A	I	R	Z	A	O	R	K
X	A	B	I	O	P	M	M	R	
T	U	E	S	T	U	T	S	E	A

**ESKOLAKO TRESNAK**

Hitz hauek bilatu:

.-Borragoma	.-Erregela
.-Estutsea	.-Klipa
.-Arkatza	.-Txintxeta
.-Margoak	.-Orria

## GURUTZEGRAMA

**4 Gurutzegrana**

- 1- Edari bat da. Gorria, txuria edo beltza.
- 2- Gardena da, eta itsasoetan edo ibaian aurkitzen da.
- 3- Mutil baten izena da.
- 4- Oso langilea eta lur azpian bizi den intsektua.
- 5- Hor estalagmitak aurkituko dituzu.
- 6- Gure gorputzean daude eta oso gogorak dira.
- 7- Zuhaitzetan egiten dute txoriek.

### LAGUNTZAILEAK:



### BABESLEAK:



Debako Udala



### PRETSA TALERRA 2013-2014

- |                  |                       |
|------------------|-----------------------|
| Aitor Gonzalez   | Maite Aldabaldetrekua |
| Alex Martija     | Alex Alonso           |
| Unai Matias      | Julen Aristi          |
| Ekaitz Zubimendi | Josu Arufe            |
| Kimetz Juaristi  | Iniño Egaña           |

Koordinatzailea: Aritz Meababasterretxea

## Juan Mari, Jokin eta Jose Mari etxean

Europako Giza Eskubideen Auzitegiak 197/2006 Doktrina legez kanpoko delat berretsiz ondoren, Espainiako Auzitegi Nazionalak aske utzi ditu Juan Mari Gabirondo Agote, Jokin Urain Larrañaga eta Jose Mari Beristain Urbieta.



Jose Mari, Juan Mari eta Jokin Itziarren.

### Juan Mari Gabirondo “Txispas” (Itziar, 1964)

1982an erbesteratu zen eta 1986ko azaroan atxilotu zuten.

27 urte hauetan Langraitz, Alcalá (Madril), Herrera (Ciudad Real), Bonxe (Lugo), Málaga eta Alamako (Pontevedra) kartzeletatik pasa ondoren, azaroaren 14an utzi dute libre.

Ezarritako zigorra bete ondoren, 2007ko abenduaren 1ean kalean behar zuen, baina Espainiako Auzitegi Nazionalak 197/2006 doktrina ezarri zion eta horren ondorioz 6 urte gehiago egin ditu espetxean.



Juan Mari bere senideekin, kartzelatik irtetean.

### Jokin Urain Larrañaga “Kixkur” (Mendaro, 1959)

1983an erbesteratu zen eta 1986ko urtarrilean atxilotu zuten.

28 urteotan Alcalá (Madril), Herrera (Ciudad Real), Sevilla, Teruel, Bonxe (Lugo), Dueñas (Palentzia), eta berriro Herrerako (Ciudad Real) kartzeletatik pasa ondoren, azaroaren 19an utzi dute libre.

Ezarritako zigorra bete ondoren 2009ko abuztuaren 29an irten behar zuen, baina 197/2006 doktrina dela medio 4 urte gehiago egin ditu kartzelan.



Jokin, kartzelatik irtetean, bere emazte, seme eta anai-arrebekin.

### Jose Mari Beristain Urbieta “Erlete” (Itziar, 1961)

1989ko apirilean atxilotu zuten.

24 urte hauetan Alcalá (Madril), Almería, Herrera (Ciudad Real), Carabanchel (Madril), Zuera (Zaragoza), Martutene eta Puerto Illo (Cádiz) kartzeletatik pasa ondoren abenduaren 3an irten da kalera. Ezarritako zigorra bete ondoren 197/2006 doktrina aplikatu zioten, eta kartzela-aldia 2019 urtera luzatu.



Jose Mari, bere ilobekin.

**Pozgarria** da inoiz ezarri behar ez zen doktrina bertan behera geratu izana eta Juan Mari, Jokin eta Jose Mari etxean izatea baina ez dugu ahaztu behar oraindik ere giza eskubide urraketa ugari gertatzen dela euskal preso politikoen inguruan. Beraz, lanean jarraitu behar dugu “Euskal presoek Euskal Herrian bete dezaten euren zigorra”, “Gaixo larriak aske utz ditzaten”, “Pertsona bezala dagozkien giza eskubide guztiak errespetatu dakizkien”.

Ondoren adierazten dugu gabon egitaraua eta zu, irakurle, “TANTA” izatera gonbidatzen zaitugu, euskal preso politiko eta iheslarien eskubideen aldeko TANTA, konponbide eta bakearen aldeko TANTA, TANTAK ITSASO bihurtuz eskubideak benetan gauzatu daitezzen. Animo eta aurrera.

### GABON EGITARAUA:

**Abenduak 20: “TANTAZ TANTA”** ekimenaren aurkezpena. Kultur Elkartearen, arratsaldeko 19:30ean.

**Abenduak 24: Olentzero**, 17:00etan plaza zaharretik.

**Abenduak 27:** Plazan azken ostiraleko **elkarretaratze berezia**.

**Abenduak 31: Itziarren Olentzero.** Irteera goizeko 8:30ean gudarien plazatik.

Urteko azken **elkarretaratzea** eta brindisa plazan, iluntzeko 19:30ean.

**Urtarrilak 4:** Zoro feri eguna. **Kaleko postuan** salda, pintxo beroa eta gabon otarraren zozketa.

**Urtarrilak 11: “TANTAZ TANTA, ITSASOA GARA”** mobilizazioa.

DENOK BILBORA. Autobusak egongo dira. Izen-emateak: Arkatza, Maxi eta Gaztetxean.

Presoekiko elkartasun taldea

## Kalez Kale: Herriko historia eta ondarea ezagutzeko panelak

Herriguneko zenbait kale eta plazatan informazio-panel berriak jarri dituzte, herriko historia eta ondarea ezagutzeko asmoz. Azaroaren 17an egin zen Kalez Kale Ibilbidearen inaugurazioa, plaza zaharrean, eta ondoren Alex Turrillasek gidatutako ibilbidea egin zuten hamarnaka lagunek.

Euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez idatzita daude informazio panelak, eta sei dira guztira: Debako hiribildua, Deba eta balea, Deba eta harria, Santa Maria eliza, Agirre Jauregia eta Itziarko Santutegia.

Egitasmo hau burutzeko Eusko Jaurlaritzako Merkataritza sailaren laguntza izan du Debako Udalak. Hiri-merkataritzaren lankidetzatza, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzeko laguntza hauen bitartez, hiri-ingurune "erakargarri eta lehiakorrak" sortu eta hiri-ingurune horietan jarduten duten dendei balio erantsia eman nahi zaiela azaldu du Udalak.



## Arakistain eta Eskudero, txapeladun Euskal Herriko trikitilari gazteen arteko lehiak

Abenduaren 1ean Zaldibarko Olazar pilotalekuan burutu zen Euskal Herriko Trikitilari Gazteen XXII. Txapelketa, eta Josune Arakistain lasturtarrak (trikitia) eta Alaitz Eskudero debarrak (panderoa) osatutako bikoteak lortu zuen garaipena.

Txapelketaren finalak sei bikote bildu zituen guztira; alegia, Josune eta Alaitzek bost bikote izan zituzten lehiakide eta bikote bakoitzak epaimahaiaren aurrean lau pieza eskaini behar izan zituen. Pieza horiei esker lortutako puntuek eman zieten, hain zuzen ere, garaipena txapeladuneri. Gainera, panderojole onenaren saria ere Alaitz Eskudero lortu zuen. "Bizkaiako Trikitia" piezarekin eta derrigorrezko fandangoarekin ere Josune

eta Alaitz gailendu ziren txapelketan. Lortutako emaitzarekin pozarren, txapela eta oroigarri ugari ekarri zituzten etxera bueltan.

### Itziarko beste bikote bat lehiak

Zaldibarren jokaturako Euskal Herriko trikitilari gazteen txapelketan, Arakistain eta Eskudero ez ezik, Itziarko beste bikote gazte bat ere aritu zen lehiak. Alegia, Naiara Mantzizidorrek eta Naiara Agirregabiriak osatutako bikotea lehenengo aldiz aurkeztu zen txapelketara, eta oso saio polita eskaini zutela kontatu digute lekukoek. Bada, txapelketaren sailkapenean laugarren postuan gelditu zen bikotea. Zorionak guztiei!!

## Kalean Kantuz, Baionan

Urtean zehar abestiak ikasten eta kalean zehar ibili ondoren, kurtso amaiera bezala, txango bat egitea pentsatu genuen. Beraz, urriaren 26an, Baionara joan ginen, hilean behin kalean euskal abestiak abesteko ohitura Baionan sortu baitzen. Egun on bat pasa eta Baionako abeslariarekin, abesti saio bat egiteko asmotan joan ginen.

Autobus bat alokatu eta goizeko 9etan irten ginen Debatik, danera 16 lagun. Iritsi eta Lacarre plaza aurkitu ondoren, ber-

tan abestu genuen bertakoekin, musikari talde on baten laguntzaz. Handik Les Halles Azokara. Jendeak erosketak egiten zituen bitartean, gu goiko pisuko balkonada baten bueltan, jendeari abesten egon ginen. Ondoren, Kalostrape ostatuan bapoz bazkaldu ondoren, txorien modura abesten jarraitu genuen.

18:00etarako etxera, ezarriak urratuta baina bihotza beteta.

*Miren Gurutze Ugarte*





# Itziarko Salegi jatetxekoa izan da Flysch kategoriako pintxorik onena

Karst kategorian Mutrikuko Txirlatxo jatetxea izan da garaile



Euskal Kostaldeko Geoparkeak antolatutako "Flysch & Karst" pintxo lehiaketaren sari banaketa ekitaldia abenduaren 3an egin zen, Debako Itsas Begi elkartearen, Irabazleek Maider Zubikarai Debako alkatearen eta Joseba Palenzuela Mutrikuko alkate eta Geogarapen elkarte-ko presidentearen eskutik jaso zuten saria: diploma eta 300 euroko diru-saria.

Salegi jatetxeak egindako Flysch pintxo irabazleak txangurru eta muskui-luz beteriko patata darama, eta Gotzon Altzibar sukaldariak jaso zuen saria. Beste saritua, Karst kategoriari dagokiona, Mutrikuko Txirlatxo taberna izan da eta pintxoa hurrengo osagaiekin dago eginda: txapiroak bere tintan eta urdaiazpikoz beteriko arrautza egosia espinaka saltsarekin arrautzaztatua. Saria Amaia Beitiak eta Patricia Zarrauak jaso zuten.

Andres Conde (Basque Culinary Center), Pantxo Bedialauneta (Cantabrico taberna, Ondarroa) eta Josu Mugerzak (Elgoibarko Belaustegi jatetxea) osatu zuten epaimahaia, eta kontuan hartu zituzten irizpideak hurrengoak izan ziren:

balio gastronomikoa, bertako produktuen erabilera, estetika, kalitatea-prezioa eta originaltasuna eta teknika.

Pintxoek Geoparkeko bi elementu geologiko garrantzitsuenak irudikatu behar zituzten, Flyscha eta Karsta. Baita lortu ere. Epaimahaiak lehiara aurkeztu ziren hogeit hamar sukaldariak prestatutako mokaduen orijinaltasuna eta kalitatea goraiatu zuen. Edonola ere, azken erabakia hartzerako orduan kontuan hartu ziren azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean herritarrek emandako botoak: 1.000 lagun baino gehiago izan ziren Deba, Mutriku eta Zumaiako tabernetan botoa eman zutenak.

Helburu nagusi bat izan du ekimenak: Geoparkearen irudia zabaltzeko eta bisibilitatea emateko promoziorako elementu berriak sortzea, herritarrei zein kanpoko bisitariei begira. Gainera, lehiaketak beste helburu batzuk ere bazituen, hala nola baserriaren eta ostalarien arteko elkarlana bultzatzea eta bertako produktu freskoak kalitatezko sukaldaritzarekin batzea.

## Deskontu-txartelak pintxoak dastatzeko

Geoparkea osatzen duten hiru udalerritan ostalaritza bultzatu eta kontsumoa sustatzeko, deskontu-txartelak jarri dituzte orain herritarren eskura. 6,60 euroren truke eskuratu ahal izango dira eta txartel bakoitzarekin herritarrek sei pintxo dastatzeko aukera izango dute Deba, Zumaiak eta Mutrikuko establezimendu parte-hartzaileetan, hiru eguneko epearen barruan. Deskontu-txartelak hiru herrietarako balio dute, eta pintxo irabazleez gainera, eskaintzen diren gainerako pintxoak kontsumitzeko erabili daitezke. Deskontu txartelak hiru herrietako turismo bulegoetan daude salgai. Deskontu txartelarekin batera herritarrek 20 establezimendu parte-hartzaileen mapa jasoko dute, taberna eta jatetxeen kokapenarekin.



## Mintzalagunek lau taldetan jardungo dute ikasturte honetan

Deban dagoeneko lau mintzalagun talde ditugu martxan eta mendi buelta euskaraz egiteko aukera ere zabaldu da ikasturte honetan.

Egitasmoak euskaraz aritze-ko ohiturarik ez duten lagunak ohitura dutenekin batzen ditu, erabileran eragiteko eta hizketarako konfiantza eta gune berriak sortzeko.

Orain arte sortu diren taldeen ordutegiak honakoak dira: asteartean, eguerdian eta 16:15ean; asteazkenetan 17:30ean; ostegunetan 18:00etan eta berrikuntza modura ostiralgoizetan euskaraz mendi buelta egiteko eskaintza ere egin da oraingoan.

Euskaraz gozatu eta lagun berriak egin nahi badituzu, animatu eta parte hartu taldetxo hauetan.

Informazio gehiagorako, idatzi [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com) helbidera, deitu 943191383 telefonora edo pasa euskara elkartearen bulegotik (Iifar kalea, 12 behea).


## Epaiaketa politikoen aurkako ekimenak

Lerro hauen bitartez, Euskal Herria jasaten ari den epaiaketa politikoen berri eman nahi dizuegu. Urriaren 17an hasita, Auzitegi Nazionalan 40 gazte epaituak (240 urteko kartzela zigorra eskatuta), Arrano Elkartearen auzian -35/02- 36 lagun epaituak, 372 urteko kartzela zigorra eskatuta, eta 110 Arrano elkareren dekomisioa (Debako Arrano Elkartearen artean). Bi pertsona ditugu gure bailaran epaiaketa-aren zain, gazteen aurkako erasoak salatzeagatik eta herriko beste gazte bat, euskal presoei elkartasuna adierazteagatik.

Deba herriak egoera honen berri izan dezan, eta jasaten ari garen zurrumbilo politiko hau salatzeke hainbat ekitaldi antolatu ditugu: Libre kantu-poteoa (abenduak 14), Libre mus txapelketa (abenduak 21), Libre argakia (urtarrilak 4), Libre patata tortilla lehiaketa (urtarrilak 25); Libre krossa (otsailak 15) eta Libre mozzorro-lehiaketa (martxoak 1).

Gonbidatuta zaudete ekitaldi hauetan parte hartzea, auzipetuak izaten ari direnei eta auzipetuko dituztenei bakarrik ez daudela adierazteko.

*Libre Taldea*



## Agenda

**Abenduak 20, ostirala**

-**"Baga, biga, higa"** Euskarazko musikaren transmisioa eta sustapena. Eñaut Elorrieta-Mikel Markez. Agirre jauregiko ispiluen gelan. Goizean, Mendatako ikasleentzat.

-22:00. **"Ez gara Palestinaz ari"** (antzerkia, bertsoak, pianoa, gitarra, akordeoia, poesia). Agirre jauregiko ispiluen gelan. Sarrera: 3 euro.

**Abenduak 21, larunbata**

-Santo Tomas Eguna.

**Abenduak 22, igandea**

-Debalai elkarteak antolatutako gabonetako **haur parkea**, Aldats pilotalekuan.

**Abenduak 24, asteartea**

-12:30. **Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria**, plaza zaharrean. Ondoren, salda eta ogitarteko postua Foruen plazan.

-17:00. **Presoen aldeko Olentzero**. Plaza zaharretik irtengo da.

**Abenduak 26-30**

-**Debako VI. Animazio Zinemaldia**. Animadeba 2013. Informazio gehiago ale honetako 9. orrialdean.

**Abenduak 27, ostirala**

-12:00. **Jaiotza biziduna**, Elizan.

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoan eskubideen aldeko elkarretaratze berezia. Foruen plazan.

**Abenduak 31, asteartea**

-**Itziarren kantuz kantu** Olentzero. (Irteera: 8:30ean, Gudariaren plazatik).

-Eguerdian, **Debako Musika Bandaren Gabon Zahar kontzertua**.

-**V. San Silbestrea**, lasterketa herrikoia.

-19:30. Presoen aldeko **elkarretaratzea eta brindisa**, Foruen plazan.

**Urtarrilaren 1etik aurrera**

-**Urteberriko XXXVIII. Idi-Probak**, Euskal Jolasen.

**Urtarrilak 4, larunbata**

-**Zoro FERIA**. Egun osoko egitarau berezia antolatuko da (fruta eta barazki azoka, ganadu feria, artisau postuak, kalejirak...).

-**Bizar Zuri**. 18:30etik aurrera herriko kaleetan zehar.

**Urtarrilak 5, igandea**

-19:00. **Errege kabalgata**, herriko kaleetan zehar.

**Urtarrilak 12, igandea**

-8:30. **Mendi irteera**: Gatzaga-Degurixa-Andarto-Araotz. Burdin Kurutz eta Luzarok antolatutako txangoa.

## Erakusketak

-**Haitz Haundiren pintura erakusketa**, udaletxean. Abenduaren 21etik urtarrilaren 3ra bitartean egongo da ikusgai.

-**Jaiotzen erakusketa**, Turismo Bulegoan. Haurrek egindako lanak egongo dira ikusgai gabonetan zehar.

## Gaztelekuko ekimen bereziak

-Abenduaren 27an (ostirala), Debako Gaztelekuak bere 10. urteurreneko festa ospatuko

du. Era berean, gabonetan Osioko lokal berriaren inaugurazio ekitaldia ere egongo dute.

## Debanatura: Gabonetako Haur Txokoa

-Bigarren urtez, Debanatura elkarteak Gabonetako Haur Txokoa antolatu du Gela Berdean. Gabonetako oporretan haurrei zuzendutako ekintza bateriko egitaraua prestatu du, tailerrekin, eskulaneekin, jolas kooperatiboekin, eta abar. Plaza mugatuak izango dira. Informazio gehiagorako:



943191172 edo 695783656 telefono zenbakiak.

## Emakumezkoen II. Pala Txapelketako finala eta omenaldia Deba eta Itziarko neska arraunlariei

-Abenduaren 21ean (larunbata) jokatu da Emakumezkoen II. Pala Txapelketako finala. Hitzordua 12:00etan izango da, Aldats pilotalekuan. Txapelkun eta txapelkunorde postuez gain, 3. eta 4. postua ere jokoan egongo dira.

Era berean, final eguna aprobetxatuko du Udalak, azkeneko Kontxako banderari txapeldun izan zen Zumaiako traineruan partaide izan diren Deba eta Itziarko neska arraunlariei (Olatz Agirregabiria, Olatz Arrizabalaga eta Itxaso Aramendi) omenaldia egiteko.

## Gabonetako ordutegi berezia liburutegian

Abenduaren 23tik urtarrilaren 6a bitarte, Ostolaza Udal Liburutegiak ordutegi berezia izango du. Goizez bakarrik izango da zabalik.

\*Liburutegi orokorra, astelehenetik ostirala bitarte, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

## ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **abenduak 23, 24, 25, 26.**  
urtarrilak 10, 11, 12.

Burgoa Zuazo: **abenduak 27, 28, 29.**  
urtarrilak 6, 7, 8, 9.

22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat guardian.

## DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: abenduak 14 eta 17  
BURGOA ZUAZO: abenduak 28

urtarrilak 4


9:30 - 13:30



OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA  
TEL. 943 19 21 92

**MULTIÓPTICAS**  
**Uzuri**

ZURE  
ENTZUMENA  
ZAITZEN



RPS: 183/12

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206

Tel.-faxa: 943 191 774

Hondartza, 10 - behea

**20820 DEBA (Gipuzkoa)**

mikeliturgintza@euskalnet.net

www.mikeliturgintza.com

**A**  
**D**

**ASESORIA DEBA C.B.**

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617

Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127

HONDARTZA, 2 - BEHEA

20820 DEBA (GIPUZKOA)

Fax: 943 192 482

ase.deba@teletelone.es

**atari**  
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA

Lersundi 1, behe 20820 - DEBA

Tel: 943192263

www.atarideba.com



**Lizaso**  
**Autozerbitzua**

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29



ITXAS GAIN  
Taberna  
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA



**oskarbi**

Menua

Ogitartekoak

Plater Kombinatua

Lersundi kalea, 9  
Tel. 943 029 428 - 916 544 014  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA

Tel.: 943 191 197

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



Sokagiti, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel. 943 192 422

**BOKATAK - PINTXOAK**

ETA GIRO ONA



Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel./Fax: 943 192 249

Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940

sagarmina@sagarmina.com

www.sagarmina.com

**Bordatxo**  
JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater kombinatua - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376

Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Afariak: 20:00 / 23:00



**BADATUZ OLENTZERO  
ETA MARI DOMINGI**

**EGUBERRI ON!!**

Abenduak 24, asteartea  
12:30ean ongiatorria plaza zaharrean.

Ondoren, salda eta ogitarteko  
postua Foruen Plazan.

## **DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA**

*Euskararentzat bidea ez da  
erraza eta leuna;  
hala eta guztiz ere, argituko da  
noizbait bere etorkizuna.  
Hizkuntza dugu herriak duen  
benetako ondasuna;  
Urte Berriak dakarkiola  
geureari osasuna.*

*Eguberri zoriontsua  
eta urte berri on!*



DEBABE UDAL EUSKALTEGIA  
Ifar kalea, 12 - Telf: 943 19 22 36  
[debabe.deba@telefonica.net](mailto:debabe.deba@telefonica.net)